

PROGRAMA  
EUSKERA

URRIA AZAROA ABENDUA 2022



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

gizartea eta kultura  
garaikidea

Bilbao



## Victoria Ascaso

*Pretty Sad*

Tailerra

Tailer honen helburu nagusia da hausnarketa kritikorako gune bat sortzea, gorputzaren kontzepzioari dagokionez, errealitate birtualen eta fisikoen artean sortutako frikzioari buruz.

Gure ahots grabatua entzuten dugunean, agian ez dugu gure burua hor ezagutuko; era berean, gure bizitza gehiena online bizitzean, zer ondorio du gure gorputz fisikoentzat gure irudi digitalarekin sortzen den disoziazioak? Bizi al daiteke perfekzio digitaleko distopia honetan, mundu fisikoak mindu gabe?

Lau saiotan aztertuko dugu zer aplikazio erabiltzen dugun, nola egiten dugun, zer funtzionaltasun duten. Instagrameko iragazkien aukerekin eta hainbat teknikekin esperimendatuko dugu, sare sozial batean ekintza artistiko bat egiteko.

Tailer hau *So Sad Today* proiektuaren parte da, gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da.

---

**VICTORIA ASCASO** (Zaragoza, 1986). 2017az geroztik, prestakuntzan ikertzaile gisa lan egiten du UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultatean. Haren lana praktika artistikoaren, diseinu espekulatiboaren eta ikerketa akademikoaren arteko topagunean kokatzen da. Hainbat jaialdi eta erakusketa kolektibotan egon da ikusgai, besteak beste, hauetan: Getxophoto, Tabakalera, MEM Jaialdia, Kaleartean, BideOtik, BLV- ART, Getxoarte eta Etopia. 2021eko sorkuntzari laguntzeko Babestu programan hautatutako artistetako bat da.

---

////////////////////////////////////

2022ko urriaren 10a, 11,  
24a eta 25a

4 saio, 2 ordukoa bakoitza

Iparraquirre Aretoa

Ikastetxeekin itundua

Batxilergoko 1. mailako  
ikasleei zuzendua.

////////////////////////////////////

**ATEAK  
ZABALIK**

SORKUNTZA ARTISTIKORAKO

Urriak 6

18:00-20:00

Eguzkiaren pantaila



So Sad Today